

GREMIO  
DE EDITORES  
DE EUSKADI



EUSKADIKO  
EDITOREEN  
ELKARTEA

CONNECTA

***2009ko EUSKARAZKO  
ARGITALPENEI  
BURUZKO TXOSTENA***

**Norentzat egina:**

**Euskadiko Editoreen Elkarte**

**Babeslea:**



KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b> .....	<b>6</b>
<b>METODOLOGIA</b> .....	<b>7</b>
AZTERKETA EREMUA .....	7
INFORMAZIOAREN BILKETA .....	7
ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA .....	7
AZALPENAK .....	8
IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA.....	9
<b>ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR</b> .....	<b>10</b>
<b>ARGITALPEN PRIBATUA, EUSKARAZ</b> .....	<b>13</b>
ARGITALPEN PRODUKZIOA .....	13
Euskaraz argitaratutako izenburuak, kopuru tarteak .....	15
Euskarazko argitalpenak, guztizkoarekin alderatuta. Euskadiko argitaletxeak	16
Argitalpen produkzioa, sailka .....	17
Euskaraz argitaratutako aleak, sailka .....	21
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailka .....	24
Katalogoko izenburuak .....	26
Katalogoko izenburuak, sailka.....	26
<b>MERKATURATZEA</b> .....	<b>30</b>
2009KO FAKTURAZIOA.....	30
Fakturazioaren zenbatekoa, sailka .....	30
Fakturazioa sailez sail, jatorriaren arabera.....	33
Liburuak merkaturatzeko bideak .....	34
Batez besteko prezioak eta saldutako aleak .....	37
<b>UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK, EUSKARAZ</b> .....	<b>39</b>
<b>BESTE DATU BATZUK</b> .....	<b>44</b>
ENPLEGUA .....	44
EGILE ESKUBIDEAK .....	44
ITZULTZEAK .....	45
<b>ARGITALPEN PUBLIKOA, EUSKARAZ</b> .....	<b>46</b>
<b>LABURPENA</b> .....	<b>48</b>
SAILKAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK.....	51
ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK .....	54

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. TAULA. UNIBERTSOA ETA LAGINA.....	9
2. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATZEN DUTEN ARGITALETXEAK.....	10
3. TAULA. 2009KO EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK ..	11
4. TAULA. EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK .....	13
5. TAULA. ARGITARATUTAKO IZENBURUEN, ARGITARATUTAKO ALEEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA ..	14
6. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK.....	15
7. TAULA. ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.....	16
8. TAULA. EUSKARAZKO IZENBURUEN PRODUKZIOA, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	18
9. TAULA. IZENBURUAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA ..	20
10. TAULA. 2009AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILKA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK .....	21
11. TAULA. ALEAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA .....	23
12. TAULA. BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	24
13. TAULA. BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	25
14. TAULA. KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	26
15. TAULA. KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	27
16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA .....	28
17. TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	30
18. TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2009an, SAILKA. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	30
19. TAULA. FAKTURAZIOA, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA	32
20. TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOA, 2009an, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	34
21. TAULA. FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	35
22. TAULA. SALDUTAKO ALEAK. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDERAKETA.	37
23. TAULA. ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA .....	37
24. TAULA. EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE- HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN .....	38
25. TAULA. 2009AN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IZENBURUAK.....	39
26. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	39

27. TAULA. 2009AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN ALEAK (MILAKOTAN).....	40
28. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2008. URTEAREKIKO BILAKAERA.....	40
29. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, 2009AN .....	41
30. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA .....	41
31. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK, 2009AN .....	42
32. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA .....	42
33. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOAREN ZENBATEKOA, 2009AN.....	43
34. TAULA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA .....	43
35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIVATUAK .....	44
36. TAULA. ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA.....	45
37. TAULA. ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILKA 47	
38. TAULA. LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK .....	48
39. TAULA. LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK .....	48
40. TAULA. EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA .....	49
41. TAULA. EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILKA. ARGITALETXE PRIVATUAK.....	50
42. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILKA (ARGITALETXE PRIVATUAK).....	51
43. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILKA (ARGITALETXE PRIVATUAK) .....	52
44. TAULA. EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILKA (ARGITALETXE PRIVATUAK) .....	52
45.- TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN NAHIZ FRANTZIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILKA (ARGITALETXE PRIVATUAK) .....	52
46. TAULA. HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIVATUAK) .....	53

## **GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

1. GRAFIKOA. ARGITALETXEEN TIPOLOGIA .....	10
2. GRAFIKOA. ARGITALETXEEN EHUNEKOA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA .....	16
3. GRAFIKOA. SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-tan) .....	20
4. GRAFIKOA. ARGITALETXE PRIBATUEK SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, JATORRIAREN ARABERA (%-tan) .....	23
5. GRAFIKOA. KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILKA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-tan) .....	29
6. GRAFIKOA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILKA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-tan).....	33
7. GRAFIKOA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-tan).....	36
8. GRAFIKOA. LORTUTAKO BALIOAK ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA (% BERTIKALAK).....	49
9. GRAFIKOA. HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-tan) .....	53

---

## **SARRERA**

Txosnen hau euskarazko argitalpenei buruzko bosgarren azterketa da, 2009. urteari dagokiona. 2005az geroztik, Euskadiko Editoreen Elkarteak euskarazko argitalpenei buruzko azterketa egiten du, urtero, Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz argitaratzen diren lanen datuei beste autonomia erkidego batzuetan eta Ipar Euskal Herrian argitaratzen direnenak gehituta. Zeregin horren ardura CONECTA Research & Consulting enpresak dauka.

Azterketa egiteko, euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datuak bildu ditugu, lurralde osoa aintzat hartuta; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioa bildu dira. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe, egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren, euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartu ditugu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeek eta haren mendeko entitateek datuak ere bildu ditugu.

Azkenik, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagatik, Euskadiko Editoreen Elkarteari, galdeketari erantzun dioten enpresei eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari, horiei esker egin ahal izan baitugu ikerlan hau.

## METODOLOGIA

### Azterketa eremua

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuen argitalpena da**, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan ikerketa egiteko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarteen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategoria horren barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk)
- Erakunde publikoak (EP)

Horiek guztiak 2009. urtean argitalpenaren eremuan barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

### Informazioaren bilketa

Honako prozedura hauei jarraitu diegu:

- Euskadiko enpresa pribatuei buruzko informazioa erabili dugu, 2009ko Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzaren txostenean bildua.
- Gainera, galdetegi egituratu bat erabili dugu Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuen datuak biltzeko. Posta elektronikoz igorri diegu.
- Bestalde, erakunde publikoei buruzko informazioa bildu dugu, telefono bidezko galdeketa baten bidez.
- ISBN datu basea ere erabili dugu.

### Eskuratutako informazioaren aurkezpena

Txosten honetan, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak aditzera emango ditugu, lehendabizi: eragile argitaratzaileei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak, hain zuzen. Ondoren, argitalpen pribatuei buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina txosten honetan, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak erantsi dizkiogu informazio horri.

Ondoren, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko barne merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskadiko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez dira atal horretan sartuko, argitalpen pribatuen atalean baizik.

## **Azalpenak**

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu basea edo Liburuen Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2009an erregistratutako liburuen kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure ustez: berrargitaratutako lanak dira, argitaratzaile berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenez, ez da horientzat ISBN zenbaki berririk eskatu.



## Ikerketaren fitxa teknikoa

**Lanaren egilea:** CONECTA Research & Consulting.

**Unibertsoa:** ISBNko datuen arabera, 2009. urtean 127 argitaletzek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 6 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

**Laginaren tamaina:** 64 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, argitaletxe pribatuen unibertsoaren %62,7k. Beste autonomia erkidegoetatik lortutako laginari dagokionez, %33,3k erantzun diote galdeketari, eta kopuru hori nahiko handia denez, talde horrek duen euskarazko fakturazioaren adierazgarritzat jotzen dugu.

Argitaletxe pribatuen %62,7ren eta erakunde publikoen %16,1en erantzunak bildu dira. Galdeketari erantzun ez dieten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako datuetatik jaso dugu.

### 1. TAULA. UNIBERTSOA ETA LAGINA

	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	69	49	71,0
NFE	6	2	33,3
Ipar EH	6	6	100,0
Beste AE batzuk	21	7	33,3
<b>Argitaletxe pribatuak, guztira</b>	<b>102</b>	<b>64</b>	<b>62,7</b>
EP	31	5	16,1
<b>Guztira</b>	<b>133</b>	<b>69</b>	<b>51,9</b>

**Galdeketa mota:** egituratua.

**Aplikazioa:** norberak betea.

**Landa lanerako datak:** 2010eko iraila/urria, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuei, argitaletxe publikoei eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeei dagokienez. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak otsailaren 30a eta irailaren 30a bitartean lortu genituen.


**Taulan jartzea:** datuak CONECTA Research & Consulting enpresan grabatu eta taulan jarri dira.

## ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espanian eta Frantzian, 2009. urtean, 133 enpresak argitaratu zituzten lanak euskaraz. Datuak hobeto ulertzeko, kategorია hauetan banatuko ditugu:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)<sup>1</sup> duten 71 argitaletxe pribatu (Euskadiko barne merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak nahiz horren barruan egon ez arren 2009. urtean argitalpen sektorean jardun zutenak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 4\* argitaletxe pribatu.
- Frantziako 8 argitaletxe pribatu (Ipar Euskal Herria).
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean (beste AE batzuk) duten 21 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 31 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko eragile argitaratzaile hitza erabiltzea komeni da, erakunde horien jarduera nagusia ez baita argitalpena.

### 1. GRAFIKOA. ARGITALETXEEN TIPOLOGIA



### 2. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATZEN DUTEN ARGITALETXEAK

	Argitaletxe pribatuak					EP	% bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	94	69	0	0	0	25	70,7
NFE	12	2	4	0	0	6	9,0
Ipar EH	6	0	0	6	0	0	4,5
Kataluniako AE	10	0	0	0	10	0	7,5
Madrilgo AE	8	0	0	0	8	0	6,0
Beste AE batzuk	3	0	0	0	3	0	2,3
<b>Guztira</b>	<b>133</b>	<b>71</b>	<b>4</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>31</b>	<b>100,0</b>
% horizontalak	100,0	53,4	3,0	4,5	15,8	23,3	100,0

<sup>1</sup> Nafarroako bi argitaletxe talde horretan sartu ditugu, Euskadiko Editoreen Elkartearen barruan daudelako eta EAEko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean bilduta daudelako haiei buruzko datuak. Bi hezkuntza erakunde publiko ere bai.



Argitaratzaile mota	Herrialdea	Eragileak	Izenburua k, guztira	Argitaletxeak
Egileak/Editoreak, guztira		30	39	
	Araba	1	1	
	Gipuzkoa	12	19	
	Bizkaia	13	15	
	Bartzelona	3	3	

## ARGITALPEN PRIBATUA, EUSKARAZ

### Argitalpen produkzioa

2009. urtean, 1.882 izenburu<sup>3</sup> kaleratu zituzten euskaraz argitaletxe pribatuek, 2008an baino %2,8 gutxiago, baina 2007an baino %5,7 gehiago. Argitaratutako izenburuen %82,9 EAEko argitaletxe pribatuek argitaratu zituzten; %1,1, Nafarroako Foru Erkidegokoek; %1,4, Ipar Euskal Herrikoek; eta %14,6, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

2009an, 3.762 milioi ale argitaratu zituzten, aurreko urtean baino %6,9 gutxiago, baita 2007an baino %2,3 gutxiago ere. Ale gehienak (%89,1) EAEko argitaletxe pribatuek argitaratu zituzten.

Lurraldeka aztertuz gero, Ipar Euskal Herrian aldaketa nabarmena izan zen 2008arekin alderatuta, izan ere, argitaratutako izenburuek %25,0 egin zuten behera eta argitaratutako aleek, berriz, %44,6 gora.

Batez besteko argitaraldia izenburuko 1.999 alekoa izan zen, iazkoa baino 87 ale txikiagoa eta 2007koa baino 166 ale txikiagoa. 2008arekin alderatuta, Ipar Euskal Herrikoa izan zen aldaketa nabarmenena, batez bestekoak 668 ale egin baitzuen gora.

Hemen beheko taula honetan, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak daude adierazita, eta hurrengo orrialdekoetan, azken hiru urteetako bilakaera eta 2008arekiko alderaketa agertzen dira, argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak eta batez besteko argitaraldia kontuan hartuta.

#### 4. TAULA. EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK

	Argitaratutako izenburuak	%	Argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia
<b>Guztira</b>	<b>1.882</b>	<b>100,0</b>	3.762.432	<b>100,0</b>	<b>1.999</b>
<b>EAE</b>	1.561	82,9	3.353.627	89,1	2.148
<b>NFE</b>	20	1,1	21.106	0,6	1.055
<b>Ipar EH</b>	27	1,4	37.500	1,0	1.389
<b>Beste AE batzuk</b>	274	14,6	350.199	9,3	1.278

<sup>3</sup> Euskal Herriko Unibertsitatekoak barne.[

**5. TAULA. ARGITARATUTAKO IZENBURUEN, ARGITARATUTAKO ALEEN ETA BATEZ  
BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA**

	Argitaratutako izenburuak			
	2007	2008	2009	% aldaketa
<b>Guztira</b>	<b>1.781</b>	<b>1.937</b>	<b>1.882</b>	<b>-2,8</b>
<b>EAE</b>	1.478	1.563	1.561	-0,1
<b>NFE</b>	24	19	20	5,3
<b>Ipar EH</b>	19	36	27	-25,0
<b>Beste AE batzuk</b>	260	319	274	-14,1

	Argitaratutako aleak (x 1.000)			
	2007	2008	2009	% aldaketa
<b>Guztira</b>	<b>3.851</b>	<b>4.041</b>	<b>3.762</b>	<b>-6,9</b>
<b>EAE</b>	3.479	3.596	3.354	-6,7
<b>NFE</b>	22	22	21	-2,1
<b>Ipar EH</b>	14	26	38	44,6
<b>Beste AE batzuk</b>	335	397	350	-11,9

	Batez besteko argitaraldia			
	2007	2008	2009	Aldea
<b>Guztira</b>	<b>2.162</b>	<b>2.086</b>	<b>1.999</b>	<b>-87</b>
<b>EAE</b>	2.353	2.301	2.148	-153
<b>NFE</b>	937	1.135	1.055	-80
<b>Ipar EH</b>	742	721	1.389	668
<b>Beste AE batzuk</b>	1.290	1.246	1.278	32

## Euskaraz argitaratutako izenburuak, kopuru tartearak

2009an euskaraz argitaratu zuten argitaletxe guztien (133 argitaletxe) %75,1ek 9 izenburu argitaratu zituzten euskaraz. 45 enpresak (%33,8) izenburu bakarra argitaratu zuten euskaraz; 41 enpresak (%30,8) atera zituzten 2 eta 4 izenburu bitarte euskaraz; eta 14 enpresak (%10,5) plazaratu zituzten 5 eta 9 lan bitarte euskaraz.

%25 enpresa inguruk argitaratu zituzten 10 izenburu edo gehiago. Horien %72,7 Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratu ziren.

### 6. TAULA. EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

	Guztira (%)	Argitaletxe kop., guztira	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			EAE <sup>4</sup>	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>133</b>	<b>71</b>	<b>4</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>31</b>
1 izenburu	33,8	<b>45</b>	21	1	0	5	18
2-4 izenburu	30,8	<b>41</b>	16	2	5	11	7
5-9 izenburu	10,5	<b>14</b>	10	0	1	1	2
10-49 izenburu	15,0	<b>20</b>	14	1	0	2	3
50 izenburu edo gehiago	9,8	<b>13</b>	10	0	0	2	1

<sup>4</sup> Gogoan izan EAEko datuen barruan irakaskuntza erakunde publiko bat dagoela sartuta.

## Euskarazko argitalpenak, guztizkoarekin alderatuta. Euskadiko argitaletxeak

Aztertu diren 96 argitaletxe pribatuetatik (Ipar Euskal Herrikoak izan ezik) 41ek euskaraz argitaratu zituzten beren lanen %75etik gora; EAEko 40 argitaletxek eta Nafarroako Foru Erkidegoko batek, hain zuzen. Beraz, **EAEko argitaletxeak dira euskarazko argitaratzaile nagusiak.**

10 argitaletxe pribaturen euskarazko produkzioa %50 eta %75 bitartekoa izan zen (guztiak EAEkoak). 9 argitaletxek lanen %25 eta %49 bitarte argitaratu zituzten euskaraz (8 ziren EAEkoak eta 1 beste autonomia erkidego batekoa); eta, azkenik, 36 argitaletxe pribatuk beren produkzioaren %25 baino gutxiago egin zuten euskaraz (13 ziren EAEkoak; 20, beste autonomia erkidego batzuetakoak; eta 3, NFEkoak).


27 erakunde publikoetatik 20k euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen %75etik gora.

### 7. TAULA. ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE

Argitaletxe kopurua	Argitaletxe pribatuak*					EP
	Guztizko orokorra	Pribatuak, guztira	EAE	NFE	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>127</b>	<b>96</b>	<b>71</b>	<b>4</b>	<b>21</b>	<b>31</b>
%25 baino gutxiago	41	36	13	3	20	5
%25 - %49	11	9	8	0	1	2
%50 - %75	14	10	10	0	0	4
%75 baino gehiago	61	41	40	1	0	20

\* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

### 2. GRAFIKOA. ARGITALETXEEN EHUNEKOA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA





## Argitalpen produkzioa, sailka

Atal honetan argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu, sailka (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak). Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- Literatura: eleberria, poesia eta antzerkia, bestelako literatura.
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitateaz kanpoko testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta liburu nahiz material osagarriak.
- Testu zientifikoak, testu teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorrotasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina hartzen ditu, besteak beste, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia.
- Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaiak, gidak, mapak, etab.
- Dibulgazioa, oro har: sail horretan sartzen dira *Dibulgazioko beste liburu batzuk* saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak: *Testu zientifikoak, testu teknikoak eta unibertsitate testuak* saila eta *Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak* saila elkartu ditugu.
- Liburu praktikoak eta dibulgazioak: *Liburu praktikoak* eta *Dibulgazioa, oro har* sailak elkartu ditugu.
- Beste gai batzuk: *Hiztegiak nahiz entziklopediak*, eta *Bestelakoak* sailak elkartu ditugu.

## Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailka

Argitaletxe pribatuek euskarazko 1.882 izenburu argitaratu zituzten, guztira, 2009an. Lan horien %82,9 EAEn plazaratu ziren (1.561 izenburu); 19 izenburu argitaratu zituzten euskaraz NFEEn (%1,1); 27, Ipar Euskal Herrian (%1,4); eta 274, beste AE batzuetan (%14,6).

2009an ere, argitaletxe pribatuek euskaraz argitara emandako izenburu gehienak (%50,6) unibertsitateaz kanpoko testuak izan ziren. Haur eta gazteentzako lanak, berriz, %26,5 izan ziren. Bi sail horiek euskaraz argitaratutako izenburu guztien %77,1 osatu zuten.

Sail horiei dagokienez (*Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura*), eta autonomia erkidegoen arteko alderaketa eginez gero, beste autonomia erkidego batzuetan zegoen izenburu kopuru handiena, %89,3koa, hain zuzen ere.

Euskaraz argitaratzen duten eta beste autonomia erkidego batzuetan kokatuta dauden argitaletxeek, oro har, testuliburuak eta haurrentzako argitalpenen sailetan lan egiten dute. Hala, ez da harrizkoa euskarazko liburuen merkatuan eta Euskadiko merkatuan sartzeko bi sail horien bitartez saiateraz, batez ere, testuliburuak sailaren bidez, argitaletxe horiek argitaratutako izenburu guztien %62,7 baitira testuliburuak. Hala ere, haur eta gazteentzako liburuen kopuruak gora egin du, testuliburuak kaltetan (beste autonomia erkidego batzuetan %26,6koa izan zen).

### 8. TAULA. EUSKARAZKO IZENBURUEN PRODUKZIOA, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK


	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>1.882</b>	<b>1.561</b>	<b>20</b>	<b>27</b>	<b>274</b>
Literatura	251	225	11	9	6
<i>Eleberria</i>	197	176	11	6	4
<i>Poesia, antzerkia</i>	16	13	0	2	1
<i>Bestelako literatura</i>	38	36	0	1	1
Haur eta gazte literatura	499	417	2	8	73
Unibertsitateaz kanpoko testuak	953	768	4	9	172
<i>Haur Hezkuntza</i>	153	149	0	1	3
<i>Lehen Hezkuntza</i>	403	302	0	3	98
<i>DBH</i>	199	157	4	0	37
<i>Batzilergoa</i>	78	46	0	0	31
<i>LH</i>	9	9	0	0	0
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	112	105	0	5	2
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	90	75	1	0	14
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	45	38	2	1	4
Beste gai batzuk	45	40	0	0	5

\* Nafarroako Foru Erkidegoko bi argitaletxe daude EAE barruan sartuta

	<b>Guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>NFE</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Beste AE batzuk</b>
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	13,3	14,4	55,0	33,3	2,2
<i>Eleberria</i>	10,5	11,3	55,0	22,2	1,5
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,8	0,8	0,0	7,4	0,4
<i>Bestelako literatura</i>	2,0	2,3	0,0	3,7	0,4
Haur eta gazte literatura	26,5	26,7	10,0	29,6	26,6
Unibertsitateaz kanpoko testuak	50,6	49,2	20,0	33,3	62,7
<i>Haur Hezkuntza</i>	8,1	9,5	0,0	3,7	1,1
<i>Lehen Hezkuntza</i>	21,4	19,3	0,0	11,1	35,8
<i>DBH</i>	10,6	10,1	20,0	0,0	13,7
<i>Batxilergoa</i>	4,1	3,0	0,0	0,0	11,4
<i>LH</i>	0,5	0,5	0,0	0,0	0,0
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	6,0	6,7	0,0	18,5	0,7
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	4,8	4,8	5,0	0,0	5,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,4	2,4	10,0	3,7	1,5
Beste gai batzuk	2,4	2,6	0,0	0,0	1,8

Unibertsitateaz kanpoko testuez eta haur eta gazte literaturaz gainera, garrantzi handikoa da *Literatura* saila: 2009an, lan guztien %13,3 argitaratu ziren sail horretan.

Literaturan argitaratutako aleen %78,7 eleberriak izan ziren; %6,2, poesia eta antzerkia; eta %15,0, bestelako literatura.



2008arekin alderatuta, aldaketa positiboa izan zuten sailak *Haur eta gazte literatura* (%5,4), *Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak* (%6,3) eta *Beste gai batzuk* (%15,9) izan ziren.


**9. TAULA. IZENBURUAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA**

	2007		2008		2009		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
<b>Sailak, guztira</b>	1.781	100,0	1.937	100,0	<b>1.882</b>	<b>100,0</b>	-2,9	
Literatura	286	16,1	274	14,1	<b>251</b>	<b>13,3</b>	-8,5	-0,8
Haur eta gazte lit.	381	21,4	474	24,5	<b>499</b>	<b>26,5</b>	5,4	2,1
Unibertsitateaz kanpoko testuak	878	49,3	1.013	52,3	<b>953</b>	<b>50,6</b>	-6,0	-1,7
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	142	8,0	96	5,0	<b>90</b>	<b>4,8</b>	-6,4	-0,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	55	3,1	42	2,2	<b>45</b>	<b>2,4</b>	6,3	0,2
Beste gai batzuk	39	2,2	39	2,0	<b>45</b>	<b>2,4</b>	15,9	0,4

2009an euskaraz argitara emandako 1.882 lanetatik %82,9 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu zituzten. Aurreko urtean bezalaxe, argitaletxe horien argitalpenen ehunekoak %82,9 baino handiagoak izan ziren sail guztietan, unibertsitateaz kanpoko testuen sailean izan ezik: sail horretako ehunekoa %80,6koa izan zen. Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeen ehunekoa, berriz, %14,6koa izan zen, guztira, eta %18,0koa, sail horretarako.

**3. GRAFIKOA. SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-tan)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>100,0</b>	<b>82,9</b>	<b>1,1</b>	<b>1,4</b>	<b>14,6</b>



## Euskaraz argitaratutako aleak, sailka

2009an, argitaletxe pribatuek 3.762.432 ale eman zituzten argitara euskaraz. Horien %89,2 EAEn plazaratu zituzten; %0,6, NFEen; %1,0, Ipar Euskal Herrian; eta %9,3, beste autonomia erkidego batzuetan.

Euskaraz ekoiztutako ale guztien %59,5 unibertsitateaz kanpoko testuak izan ziren, eta %25,5, haur eta gazte literaturako testuak. Bi sail horietako lanak izan ziren euskaraz argitaratutako ale guztien %85,0. Jatorrien arabera alderatuta, sail horietan ale gehien ekoiztu zituen eremua beste autonomia erkidego batzuen eremua izan zen; multzo horretako argitaletxeek kaleratutako aleen %89,2, bi sailen artean.


### 10. TAULA. 2009AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILKA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	Euskadi	Nafarroa	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak) (X 1.000)</b>	<b>3.762</b>	3.354	21	38	350
Literatura	<b>288</b>	255	13	8	11
<i>Eleberria</i>	<b>232</b>	202	13	6	10
<i>Poesia, antzerkia</i>	<b>15</b>	13	0	1	1
<i>Bestelako literatura</i>	<b>41</b>	40	0	1	1
Haur eta gazte literatura	<b>958</b>	864	0	12	83
Unibertsitateaz kanpoko testuak	<b>2.239</b>	1.988	5	16	230
<i>Haur Hezkuntza</i>	<b>535</b>	526	0	3	6
<i>Lehen Hezkuntza</i>	<b>856</b>	715	0	6	135
<i>DBH</i>	<b>468</b>	388	5	0	75
<i>Batxilergoa</i>	<b>94</b>	83	0	0	11
<i>LH</i>	<b>11</b>	10	0	0	1
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	<b>276</b>	267	0	8	2
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	<b>108</b>	85	1	0	22
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	<b>98</b>	90	2	2	4
Beste gai batzuk	<b>71</b>	71	0	0	1

	<b>Guztira</b>	Euskadi	Nafarroa	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (% bertikalak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	<b>7,6</b>	7,6	62,4	22,0	3,1
<i>Eleberria</i>	<b>6,2</b>	6,0	62,4	17,0	2,8
<i>Poesia, antzerkia</i>	<b>0,4</b>	0,4	0,0	2,0	0,2
<i>Bestelako literatura</i>	<b>1,1</b>	1,2	0,0	3,0	0,2
Haur eta gazte literatura	<b>25,5</b>	25,8	0,0	31,0	23,6
Unibertsitateaz kanpoko testuak	<b>59,5</b>	59,3	23,3	42,0	65,6
<i>Haur Hezkuntza</i>	<b>14,2</b>	15,7	0,0	7,0	1,7
<i>Lehen Hezkuntza</i>	<b>22,7</b>	21,3	0,0	15,0	38,6
<i>DBH</i>	<b>12,4</b>	11,6	23,3	0,0	21,3
<i>Batxilergoa</i>	<b>2,5</b>	2,5	0,0	0,0	3,2
<i>LH</i>	<b>0,3</b>	0,3	0,0	0,0	0,3
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	<b>7,3</b>	8,0	0,0	20,0	0,6
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	<b>2,9</b>	2,5	4,3	0,0	6,4
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	<b>2,6</b>	2,7	10,0	5,0	1,0
Beste gai batzuk	<b>1,9</b>	2,1	0,0	0,0	0,3

Unibertsitateaz kanpoko testuez eta haur eta gazte literaturaz gainera, garrantziko saila da literaturarena, ale guztien %7,6 hartu zuena, 2009an.

Literatura saileko aleei dagokienez, eleberriari dagozkio %80,5; poesia eta antzerkiari, %5,1; eta beste literatura batzuei, %14,4.



Argitaratutako aleen kopuruak behera egin zuen gai multzo guztietan.


## 11. TAULA. ALEAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2007		2008		2009		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Argitaratutako aleak (x 1.000)								
<b>Sailak, guztira</b>	<b>3.851</b>	<b>100,0</b>	<b>4.041</b>	<b>100,0</b>	<b>3.762</b>	<b>100,0</b>	<b>-6,9</b>	
Literatura	359	9,3	367	9,1	<b>288</b>	7,6	-21,6	-1,4
Haur eta gazte lit.	863	22,4	978	24,2	<b>958</b>	25,5	-2,0	1,3
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.194	57,0	2.370	58,6	<b>2.239</b>	59,5	-5,5	0,9
T. zientifikoak/ giz. zientzietakoak	171	4,4	124	3,1	<b>108</b>	2,9	-12,6	-0,2
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	190	4,9	129	3,2	<b>98</b>	2,6	-24,1	-0,6
Beste gai batzuk	74	1,9	72	1,8	<b>71</b>	1,9	-2,2	0,1

Argitaletxe pribatuek 3.762.432 ale argitaratu zituzten euskaraz 2009an. Horien %89,1 EAEko argitaletxeek kaleratu zituzten. Euskadiko argitalpenetan, sail guztiek izan zuten batez besteko ehuneko hori baino handiagoa, *Unibertsitateaz kanpoko testuak* eta *Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak* sailek izan ezik; sail horien ehunekoak %88,8 eta %78,5 izan ziren, hurrenez hurren.

## 4. GRAFIKOA. ARGITALETXE PRIBATUEK SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, JATORRIAREN ARABERA (%-tan)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>100,0</b>	<b>89,1</b>	<b>0,6</b>	<b>1,0</b>	<b>9,3</b>



## Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailka

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.999 alekoa izan zen, 2009an. Jatorriaren arabera, batez besteko argitaraldiak hauek izan ziren: 2.148 alekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 1.055 alekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 1.278 alekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan; eta 1.278 alekoa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeetan.

Argitaraldi handienak unibertsitateaz kanpoko testuen liburuenak izan ziren (2.350 ale izenburuko); sail horrek izenburuen %50,6 eta aleen %59,5 bildu zituen. *Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak* sailak ere argitaraldi handia izan zuen (2.193 ale izenburuko), nahiz eta izenburuen %2,4 eta aleen %2,6 bakarrik hartu. Azkenik, haur eta gazteentzako literatura lanen batez besteko argitaraldia batez besteko osoa baino handiagoa izan zen; sail horren ekoizpena izenburuen %26,5ekoa eta aleen %25,5ekoa izan zen.

### 12. TAULA. BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Batez besteko argitaraldia</b>	<b>1.999</b>	<b>2.148</b>	<b>1.055</b>	<b>1.389</b>	<b>1.278</b>
Literatura	<b>1.148</b>	1.137	1.198	917	1.806
<i>Eleberria</i>	<b>1.174</b>	1.148	1.198	1.063	2.400
<i>Poesia, antzerkia</i>	<b>944</b>	1.054	--	375	705
<i>Bestelako literatura</i>	<b>1.099</b>	1.114	--	1.125	529
Haur eta gazte literatura	<b>1.919</b>	2.074	--	1.453	1.136
Unibertsitateaz kanpoko testuak	<b>2.350</b>	2.590	1.230	1.750	1.337
<i>Haur Hezkuntza</i>	<b>3.493</b>	3.531	--	2.625	1.917
<i>Lehen Hezkuntza</i>	<b>2.125</b>	2.370	--	1.875	1.380
<i>DBH</i>	<b>2.353</b>	2.467	1.230	--	1.994
<i>Batzilergoa</i>	<b>1.215</b>	1.800	--	--	352
<i>LH</i>	<b>1.234</b>	1.130	--	--	--
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	<b>2.464</b>	2.539	--	1.500	1.005
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	<b>1.206</b>	1.139	900	--	1.580
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	<b>2.193</b>	2.403	1.053	1.875	881
Beste gai batzuk	<b>1.580</b>	1.757	--	--	176



Hurrengo taulan, batez besteko argitaraldiak azken hiru urteetan izan duen bilakaeraren datuak bildu ditugu. Batez besteko argitaraldi osoak beherako joera izan du azken hiru urteetan; 2009an, 2008an baino 87 ale gutxiagokoa eta 2007an baino 163 ale gutxiagokoa izan zen.

Aurreko urtearekin alderatuta gora egin zuen batez besteko argitaraldi bakarra unibertsitateaz kanpoko testuena izan zen. Gainerako sailetan, batez besteko argitaraldi txikiagoak izan zituzten eta horrek eragina izan zuen batez besteko argitaraldi osoan.

Unibertsitateaz kanpoko testuena izan zen batez besteko argitaraldi handixeagoa izan zuen sail bakarra, eta argitaratutako izenburuen kopuruak (-%6,0) aleenak (-%5,5) baino zertxobait gehiago egin zuelako behera gertatu zen hori.

**13. TAULA. BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA**

	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>Aldea</b>
<b>Guztira</b>	2.162	2.086	1.999	<b>-87</b>
Literatura	1.255	1.339	1.148	-191
Haur eta gazte literatura	2.265	2.065	1.919	-146
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.499	2.339	2.350	11
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.204	1.298	1.206	-92
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	3.460	3.116	2.193	-923
Beste gai batzuk	1.880	1.862	1.580	-282

## Katalogoko izenburuak

Argitaletxeek katalogoan dituzten euskarazko izenburuen kopuruak %7,7 egin du gora azken hiru urteetan. 2007an, 11.172 izenburu zituzten katalogoan, 2008an, 11.795, eta 2009an, 12.031. 2009an katalogoan zeuzkaten izenburuen %80,8 EAEkoak ziren; %2,4, Nafarroako Foru Erkidegokoak; %1,8, Ipar Euskal Herrikoak; eta %15,0, beste autonomia erkidego batzuetakoak.

### 14. TAULA. KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira</b>	<b>12.031</b>	<b>9.718</b>	<b>291</b>	<b>220</b>	<b>1.801</b>
% horizontala	100,0	80,8	2,4	1,8	15,0
Argitaratutako izenburuak	1.882	1.561	20	27	274
Katalogoko izenburuak/ Argitaratutako izenburuak	6,4	6,2	14,6	8,1	6,6

Katalogoko izenburuen eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 6,4koa izan zen, EAEko argitaletxe pribatuetan; 6,2koa, Nafarroako Foru Erkidegoetan; 8,1ekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan; eta 6,6koa, beste autonomia erkidego batzuetakoetan.

## Katalogoko izenburuak, sailka

Hurrengo orrialdeko tauletan, katalogoko euskarazko izenburuak agertzen dira, sailka.

Euskarazko katalogoan unibertsitateaz kanpoko testuek eta haur nahiz gazte literaturakoek izan zuten garrantzi handien; guztizkoaren %40,8 eta %29,7, hurrenez hurren. Bi sailen artean, katalogoko izenburu guztien %70,5 batu zituzten.

Bi sail horiek guztizkoaren barruan izan zuten ehunekoa nabarmenagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetan, euskarazko katalogoko funtsaren %94,3 hartu baitzuten; Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, aldiz, ehuneko handiagoa osatu zuten *Literatura* saileko izenburuek, euskaraz duten ekoizpenaren %50etik gorakoa, hain zuzen ere.

**15. TAULA. KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, SAILKA, 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK**

	<b>Guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>NFE</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Beste AE batzuk</b>
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	12.031	9.718	291	220	1.801
Literatura	1.980	1.632	162	126	59
<i>Eleberria</i>	1.430	1.158	122	99	51
<i>Poesia, antzerkia</i>	229	218	3	7	2
<i>Bestelako literatura</i>	320	256	37	20	7
Haur eta gazte literatura	3.572	3.004	46	37	485
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.909	3.633	35	26	1.215
<i>Haur Hezkuntza</i>	674	561	4	6	104
<i>Lehen Hezkuntza</i>	1.756	1.115	11	12	618
<i>DBH</i>	1.384	980	15	0	389
<i>Batxilergoa</i>	483	434	5	0	44
<i>LH</i>	47	47	0	0	0
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	565	496	0	8	61
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.050	989	24	0	37
L.praktikoak eta dibulgaziozkoak	229	193	23	11	2
Beste gai batzuk	290	268	0	20	3

	<b>Guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>NFE</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Beste AE batzuk</b>
<b>Guztira (% bertikalak)</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	16,5	16,8	55,8	57,3	3,3
<i>Eleberria</i>	11,9	11,9	42,0	45,0	2,8
<i>Poesia, antzerkia</i>	1,9	2,2	1,0	3,2	0,1
<i>Bestelako literatura</i>	2,7	2,6	12,7	9,1	0,4
Haur eta gazte literatura	29,7	30,9	15,9	16,8	26,9
Unibertsitateaz kanpoko testuak	40,8	37,4	12,0	11,8	67,4
<i>Haur Hezkuntza</i>	5,6	5,8	1,4	2,7	5,7
<i>Lehen Hezkuntza</i>	14,6	11,5	3,8	5,5	34,3
<i>DBH</i>	11,5	10,1	5,2	0,0	21,6
<i>Batxilergoa</i>	4,0	4,5	1,7	0,0	2,4
<i>LH</i>	0,4	0,5	0,0	0,0	0,0
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	4,7	5,1	0,0	3,6	3,4
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	8,7	10,2	8,4	0,0	2,1
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	1,9	2,0	7,9	5,0	0,1
Beste gai batzuk	2,4	2,8	0,0	9,1	0,1

Hurrengo taulan, izenburu biziak azken hiru urteetan izandako bilakaera ikus daiteke, sailka, baita 2008arekiko aldaketa ere.

Sailkako izenburu bizien guztizkoak gorako joera izan du azken urteetan. Aurreko urtearekin alderatuta, %2,0ko aldaketa izan zen 2009an. Literaturako lanek eta unibertsitateaz kanpoko testuek izan zuten hazkunde handiena; %4,5koa eta %3,8koa, hurrenez hurren. Testu zientifikoek eta gizarte zientzietakoek, ordea, %7,7ko beherakada izan zuen 2008arekin alderatuta.

**16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILKA. BILAKAERA. 2008. URTEAREKIKO ALDAKETA**


	2007		2008		2009		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
<b>Sailak, guztira</b>	<b>11.172</b>	<b>100,0</b>	<b>11.795</b>	<b>100,0</b>	<b>12.031</b>	<b>100,0</b>	<b>2,0</b>	
Literatura	1.700	15,2	1.895	16,1	1.980	16,5	4,5	0,4
Haur eta gazte literatura	3.300	29,5	3.512	29,8	3.572	29,7	1,7	-0,1
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.567	40,9	4.728	40,1	4.909	40,8	3,8	0,7
T. zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.102	9,9	1.138	9,6	1.050	8,7	-7,7	-0,9
L. praktikoak eta dibulgaziozkoak	227	2,0	234	2,0	229	1,9	-2,3	-0,1
Beste gai batzuk	276	2,5	287	2,4	290	2,4	1,1	0,0

Argialetxe pribatuetako katalogoen euskarazko izenburuen %80,8 EAEko argialetxe pribatuek argitaratu zituzten.

Euskal Autonomia Erkidegoan, izenburu bizen ehunekoa guztizko kopurua baino handiagoa izan zen sail guztietan, *Unibertsitateaz kanpoko testuak* sailean izan ezik; sail horretan, beste autonomia erkidego batzuetako argialetxeei zegozkien izenburuen %24,7.

**5. GRAFIKOA. KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILKA, ARGIALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-tan)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	80,8	2,4	1,8	15,0



## MERKATURATZEA

### 2009ko fakturazioa

2009an, fakturazioa 39.067 mila eurokoa izan zen, guztira (aurreko urtekoa baino %10,9 txikiagoa), eta zenbateko horren %87,3 EAEko argitaletxe pribatuek fakturatu zuten.

#### 17. TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2009an. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (milaka euro)</b>	<b>39.067</b>	<b>34.097</b>	<b>261</b>	<b>200</b>	<b>4.510</b>
% horizontala	100,0	87,3	0,7	0,5	11,5

### Fakturazioaren zenbatekoa, sailka

Sailen araberrako fakturazioaren datuei erreparatuta, unibertsitateaz kanpoko testuek fakturatu zuten kopuru osoaren %73,1. Haur eta gazteentzako literatura ere garrantzitsua izan zen fakturazioan (baina askoz neurri txikiagoan); bi sailen artean fakturazio osoaren %89,5 bete zuten, 2009an.


Unibertsitateaz kanpoko testuen fakturazioaren ehunekoa handiagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetan (%89,0); haur eta gazteentzako literaturaren fakturazioaren ehunekoa handiagoa izan zen Ipar Euskal Herrian eta EAEn.

#### 18. TAULA. EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2009an, SAILKA. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>39.067</b>	<b>34.097</b>	<b>261</b>	<b>200</b>	<b>4.510</b>
Literatura	<b>2.221</b>	1.961	160	40	59
<i>Eleberria</i>	<b>1.938</b>	1.716	160	28	33
<i>Poesia, antzerkia</i>	<b>83</b>	63	0	6	14
<i>Bestelako literatura</i>	<b>200</b>	183	0	6	12
Haur eta gazte literatura	<b>6.410</b>	6.001	0	66	343
Unibertsitateaz kanpoko testuak	<b>28.565</b>	24.410	76	66	4.013
<i>Haur Hezkuntza</i>	<b>4.396</b>	4.044	2	10	340
<i>Lehen Hezkuntza</i>	<b>12.295</b>	10.384	30	12	1.869
